

# ALEGIAKO I. ARGAZKI RALLYA

**Noiz:** 2016ko irailaren 25ean

**Parte hartzaileak:** Parte hartu nahi duten argazkilari nahiz argazkizale guztiak, bakoitza bere kamera eta txartelarekin (txartel grafikoa).

**Izen-ematea:** 08:45etik 09:30era (Intxurre elkartean.)

Parte-hartzailek izena emateko orduan, kontrolerako argazki bat egin beharko dute.

Bi maila bereziko dira:

- Helduak (16 urtetik gorakoak).
- Gazteak (15 urte artekoak).

**Gaiak:** Izen-ematearen unean ezagutzera emango dira.

2016ko irailaren 25ean (08:45etik 14:00etara) egindako argazkiek bakarrik balioko dute.

Argazkiak Alegiako udalerrian egin beharko dira.

Memoria txartela 13:00etik 14:00etara bitartean deskargatu ahal izango da izen-ematearen lekuan bertan. Parte-hartzaile bakoitzak kontrolerako argazkitik aurrera gehienez 6 argazki ahal izango ditu jaitsi, gai bakoitzeko bana, gutxienez, eta horiek aurkeztuko ditu lehiaketara.

**Epaimahaia:** Alegiako Argazkizaleen Taldeko partaideek osatuko dute. Erabakiak apelaezinak izango dira.

**Sariak:** Parte-hartzaile berak ezin izango du sari bat baino gehiago jaso.

**Helduak** (16 urtetik gorakoak):

- Bilduma onena.
- Argazkia onena.
- Alegiar batek eginiko argazki onena.

**Gazteak** (15 urte artekoak):

- Bilduma onena.
- Argazkia onena.
- Alegiar batek eginiko argazki onena.

Epaimahaiaren erabakia ezagutu eta gero, lehiaketan aurkeztutako argazkiekin erakusketa bat egingo da. Sari-banaketa testuinguru horretan burutuko da; eta ezinbestekoa izango da saridunak edo beren ordezkariak bertan egotea.

\* Saritutako eta aurkeztutako argazki guztiak Alegiako Argazkizaleen Taldearen esku geratuko dira, eta argitaratzeko edo erakusteko, helburu komertzialik gabe, eskubidea izango dute (egilearen izena azalduko da beti).

\* Oinarri hauetan aurreikusten ez diren arazo guztiak Alegiako Argazkizaleen Taldeak ebatziko ditu.

\* Rally honetan parte hartzeak aipatutako oinarriak onartzen direla esan nahi du.

\* Jasotako datuak konfidentzialak izango dira, Datuen Babeserako Legearen arabera (15/1999).